

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	30 - Bidegi, S.A.
<b>Atala:</b>	3010 - Bidegi, S.A.
<b>Programa:</b>	100 - Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza
<b>Funtzionala:</b>	453 - Errepideak

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

AP-8/AP-1 autobideak eta Gipuzkoako gaitasun handiko bideak mantentzeaz, kontserbatzeaz eta ustiatzeaz arduratzen gara, baita autobideekin zerikusia duten instalazioak eta zerbitzuak ere (zerbitzu- eta garraio-guneak). Horretarako, hobetzeko beharrak identifikatzen ditugu, eta horiek egiteko behar diren zerbitzuak azpikontratatzeko, kudeatzen eta ikuskatzen ditugu kasu bakoitzean. Horrekin guztiarekin, helburua da errepideen erabilera segurua eta optimoa bermatzea.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

AP-8/AP-1, N-1/A-15 eta A-636 autobideek Gipuzkoako gaitasun handiko errepide-sarea osatzen dute, eta, aldi berean, Europako errepide-sarearen zati dira.

2023ko ekitaldiari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da:

#### Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako ibilgailu/kilometroko: 1.375.792.413 ibilgailu/kilometroko

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako kanon bidezko diru-sarrera garbiak: 162.091.188 euro

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean guztira zenbatutako bestelako ustiapen-sarrerak: 10.654.196 euro

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sareko azpiegituraren ohiko mantentze- eta kontserbazio-lanez arduratzen den operadorearen kostua: 40.940.987 euro. Zenbateko horrek barne hartzen du 2023ko ekitaldiko likidazioa: 383.685 euro BIDEGIren alde.

AP-8/AP-1/A-636 errepide-sarean egindako inbertsioengatik eta berrinbertsio/ezohiko mantentze-lanengatik urtean ziurtatutako zenbatekoa: 18.720.338 euro

Finantza-maileguz dagokienez, 2023ko abenduaren 31n zor biziaren zenbatekoa: 469.604.895 euro

#### Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

BIDEGI bidesariak kobratzen hasi zen 2023ko urtarrilaren 23an, 2021eko abenduaren 3ko 5/2021 Foru Arauan ezarritakoaren arabera. Arau horrek Gipuzkoako A-15 eta N-I errepideetan salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen du. 2023an guztira zenbatutako kanon bidezko diru-sarrera garbiak: 27.096.409 euro

2023an, Gipuzkoan, N-I eta A-15 gaitasun handiko errepideen eta kobrantza-sistemaren ohiko mantentze- eta kontserbazio-lanen kostua: 12.351.677 euro

### Beharraren eboluzioa:

Urteko ustiapen- eta kontserbazio-planen etengabeko garapena.

Erabiltzaileari arreta optimizatzea.

Finantza-betebeharrak betetzea.

Azpiegituren egoera eta emandako zerbitzua optimizatzeke beharrezko inbertsioak eta berrinbertsioak egitea.

### Nori zuzendua:

Gipuzkoako ahalmen handiko bide sareko erabiltzaileak.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, baliabideko teknologikoak eta aholkularitza teknikoak.

Gipuzkoako ahalmen handiko bide sareko azpiegitura; Gestio tresnak.

### 2. Garatu beharreko

Ustiapen-plana eta birjarpen handietarako, berrinbertsioetarako eta inbertsioetarako plana idaztea.  
 Planen garapena: proiektu eta lanak aurrera eramateko azpi-kontratazioak egin eta gainbegiratu.  
 Aurrekontua definitu: gastua, inbertsioak.... horretarako beharrezko aurreikuspenak egin (trafikoaren, diruzaintzaren.... aurreikuspena, esate baterako).

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Bide-sare egokiak, ordainetarako sistema berritzaileak.

**Programaren arau esparrua:**

- Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauren testu bateratua onartzekoa.
- Bidegiren eraketaren 43/2002 Foru Dekretua.
- 7/2002 Foru Araua. Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA» foru sozietate publikoaren zerga arloko zuzenbide arauen alderdi batzuk arautzen dituenak.
- Administrazio publikoko arautegi orokorra
- Kontabilitate Plan Orokorra eta Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunetara egokitzeko arauak.
- BEZaren Legea.
- Gainerako araudi aplikagarria.


**2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA**

**Urteko helburua:** Edukiera handiko sarearen konexioak hobetuko dituzten proiektuak abian ipintzea, baita industria eremuen eta hiriguneen irisgarritasuna hobetzera bideratuak eta sarearen segurtasuna eta funtzionaltasuna handituko dutenak ere.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Proiektuak garatzea: A-15/N-1 lotura gauzatzea, GI-631 errepidea hobetzea Azkoitia eta Urretxu bitartean, eta Europa osoan erreferente izango den garraio zentro bat edukitzea, segurtasun eta zerbitzu maila dagokienez.	Ehunekoa	25,00	15,00	100,00	100,00
Bazkardon A-15/N-I lotunearen hobekuntza proiektua idaztea eta izapidetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Ehunekoa	30,63	91,00	69,00	100,00

**Joera**

Proiektuak garatzea: A-15/N-1 lotura gauzatzea, GI-631 errepidea hobetzea Azkoitia eta Urretxu bitartean, eta Europa osoan erreferente izango den garraio zentro bat edukitzea, segurtasun eta zerbitzu maila dagokienez. - Ehunekoa



Bazkardon A-15/N-I lotunearen hobekuntza proiektua idaztea eta izapidetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%) - Ehunekoa



## Memoria

Edukiera handiko sarearen konexioak hobetuko dituzten proiektuak abian ipintzea, baita industria eremuen eta hiriguneen irisgarritasuna hobetzera bideratuak eta sarearen segurtasuna eta funtzionaltasuna handituko dutenak ere.

### JARDUKETA ILDOA:

Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.

### EKINTZA:

Hobekuntza proiektua idatzi eta dagozkion tramiteak egin.

2023:  
Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuak eskatutako azterlana zabaltzeko eskera dela eta, 2022ko urriaren 28an 607.653,82 euroan (BEZ barne) esleitu zen A-15 errepidea Bazkardon N-I errepidearekin lotzeko eta haren ingurunearekin Andoainen integratzeko eraikuntza-proiektua idazteko zerbitzua emateko kontratua. Kontratuak 19 hilabeteko iraupena du, eta 2023an eta 2024an egingo da azterlana.

2023an, % 100koa izan da 2023ko aurrekontuan planifikatutako lanen gauzatze-maila.

2023ko aurrekontuan 380.880,10 euro aurreikusi zen ziurtatzea zerbitzua emateagatik; errealitatean,

## Memoria

322.308,87 euro ziurtatu dira. Ziurtatutako zenbatekoaren eta 2023ko aurrekontua egiteko unean (2022ko urria) aurreikusitakoaren arteko aldea gauzatze aurreikuspenaren eta gauzatze errearen arteko desbideratzeen ondorio da. 2023aren itxieran, ziurtatzeko dagoen zenbatekoa 265.729,28 eurokoa da.

### ADIERAZLEA:

2024an amaituko dute idazten A-15 errepidea Bazkardon N-I errepidearekin lotzeko eta haren ingurunearekin Andoainen integratzeko eraikuntza-proiektua.

Beraz, 2023ko ekitaldiaren amaieran, ziurtatutako zenbateko osoaren ehunekoa % 69 da, Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idazteko 2021-2024ko aldian ziurtatuko den guztizko aurrekontuari dagokionez.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.



## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	407.342,92	348.297,98		
<b>1.1 Ekintza</b> Hobekuntza proiektua idatzi eta dagozkion tramiteak egin.	407.342,92	348.297,98		

## Datozen urteetako gastuak

	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometitutako datozen urteetako gastuak
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	72.910,87	265.729,73
<b>1.1 Ekintza</b> Hobekuntza proiektua idatzi eta dagozkion tramiteak egin.	72.910,87	265.729,73


## Entitatearen jarduketa operatiboa

**Urteko helburua:** Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea. Ekintza-Planaren betetze-maila (%)	Ehunekoa	50,00	96,00	91,00	100,00

**Joera**

Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea. Ekintza-Planaren betetze-maila (%) - Ehunekoa



**Memoria**

Zarataren aurkako ekintza-plana betetzea

**JARDUKETA ILDOA:**

Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatu.

**EKINTZA:**

Zarataren aurkako ekintza-plana. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.

2023:

2023ko aurrekontua:

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

- Zarataren aurkako pantailak ezartzea Erreterria parean. Obra 2022ko abuztuan hasi ziren lanak egiten eta 2023ko lehen seihilekoan amaituko dituzte.
- Zarataren aurkako pantailak ezartzen hasia Zarautz parean. 2023ko urtarrilaren amaieran hasi ziren lanak egiten eta 2024ko lehen seihilekoan amaituko dituzte.
- Oartzun parean zarataren aurkako pantailak jartzeko proiektua idaztea.

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

- Andoain parean zarataren aurkako pantailak jartzea.
- Beasain parean zarataren aurkako pantailak jartzea.

2023an, % 93,75ekoa izan da 2023ko aurrekontuan planifikatutako lanen gauzatu-maila. Hona hemen xehetasuna:

- Zarataren aurkako pantailak Erreterria parean: 2023ko maiatzaren 19an sinatu zuten obraren harrera-akta, eta, 2023ko irailaren 28an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak obraren azken ziurtagiria.
- Zarataren aurkako pantailak Zarautz parean: 2023ko otsailean hasi zuten obra eta 2024ko lehen seihilekoan amaituko dute. Plangintzaren arabera egin dituzte lanak.
- Zarataren aurkako pantailak Oartzun eta Erreterria parean. 2023ko urriaren 6an, BIDEGIko zuzendari nagusiak, bere ahalmenetan oinarrituta, onartu zuen AP-8 autobidean, Oartzun eta Erreterria udalerrietan, 11+670 eta 11+910 KPen artean pantaila akustikoak ezartzeko eraikuntza-proiektua idazteko eskaintza.
- Zarataren aurkako pantailak Andoain parean: 2023ko apirilaren 19an esleitu zuten obra eta 2023ko

## Memoria

abenduan amaitu zituzten lanak.

- Zarataren aurkako pantailak Beasain parean: 2023ko maiatzaren 12an esleitu zuten obra eta gauzatzeko epea 10 hilabetekoa da.

2023ko aurrekontuan 6.595.015 euro aurreikusi zen ziurtatzea zarataren aurkako lanengatik; errealitatean, 5.356.893,51 euro ziurtatu dira. Ziurtatutako lanen zenbatekoaren eta 2023ko aurrekontua egiteko unean (2022ko urria) aurreikusitakoaren arteko aldea obren gauzatzeko-aurreikuspenaren eta gauzatzeko errealaren arteko desbideratzeen ondorio da. Horren isla da 2023ko abenduaren 31n konprometitutako zenbatekoa: 1.332.357,78 euro (kontuan hartu da 2023ko ekitaldia ixtean esleitutako kontratuetatik eta lizitatutako kontratuetatik ziurtatzeko dagoen zenbatekoa).

### ADIERAZLEA:

2019-2023 urteen artean, zarataren aurkako pantailak jarriko dira bost gunetan: Elgoibar, Zarautz, Errenteria, Andoain eta Beasain parean.

2023ko aurrekontua egiterakoan, aurreikusi zen Zarautz pareko obra-amaierako lanak izango zirela 2023ko ekitaldiaren amaieran amaitu gabe egongo ziren bakarrak. Beraz, aurreikusi zen % 96 egingo zela. 2024ean amaituko direnez Beasain parean zarataren aurkako pantailak jartzeko lanak, % 91 egin da.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea



% 45,00



% 45,00



% 10,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	7.092.333,20	5.788.905,32		
<b>1.1 Ekintza</b>				
Zarataren aurkako ekintza-plana. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	7.092.333,20	5.788.905,32		

## Datozen urteetako gastuak


	Hasierako datozen urteetako gastuak	Konprometituta ko datozen urteetako gastuak
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	1.035.665,76	1.332.358,66
<b>1.1 Ekintza</b>		
Zarataren aurkako ekintza-plana. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	1.035.665,76	1.332.358,66

**Urteko helburua:** AP-8/AP-1 autobideetan, bidesarietako kobrantza-sistemak berritzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Kobrantza-sistemak berritzeko proiektua idaztea, lizitatzea eta gauzatzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Ehunekoa	41,14	100,00	78,00	100,00

**Joera**

Kobrantza-sistemak berritzeko proiektua idaztea, lizitatzea eta gauzatzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%) - Ehunekoa



**Memoria**

AP-8/AP-1 autobideetan, bidesarietako kobrantza-sistemak berritzea.

**JARDUKETA ILDOA:**

Kobrantza-guneen berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea.

**EKINTZA:**

AP-8/AP-1 Kobrantza-guneen berrikuntza. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.

2023:

2023ko aurrekontua:

- Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-gunea berritzeko lanak likidatzea. Lanak 2021eko irailean hasi ziren; 2022ko abenduaren 23an sinatu zen obraren harrera-akta, eta 2023an onartu da obraren azken ziurtagiria.
- Kobrantza-guneak berritzeko proiektuak idazteko laguntza teknikoa. 2022ko ekainean sinatu zen kontratua eta 2025aren amaieran amaituko da.
- Irun Bentetako kobrantza-gunea berritzea.
- Irun M/O-ko kobrantza-gunea berritzea.
- Oiartzungo kobrantza-gunea berritzen hastea.
- Zarautz Ekialdeko kobrantza-gunea berritzen hastea.
- Kobrantza kudeatzeko softwarea berritzen hastea.

2023an, % 37koa izan da 2023ko aurrekontuan planifikatutako lanen gauzatze-maila. Hona hemen

## Memoria

xehetasuna:

- Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-gunea berritzeko lanek dagokienez, 2021eko irailean hasi zituzten lanak, 2022ko abenduaren 23an sinatu zen obraren harrera-akta, eta 2023an onartu da obraren azken ziurtagiria.
- 2023ko irailaren 28an esleitu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak Irun Bentako kobrantza-gunea berritzeko obra (lanak burutzeko epea: 12 hilabete).
- 2023ko urriaren 27an esleitu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak 2023ko Irun M/O eta Orioko kobrantza-guneak berritzeko obra (lanak burutzeko epea: 12 hilabete).
- 2023an, Zarautz Ekialdeko, Oiartzungo eta Elgoibarko kobrantza-guneak berritzeko proiektuak idazten aritu dira, eta aurreikusten da 2024an lizitatzea obrak.
- 2023an instalatu dute komunikazio-sarearen firewall berria.

2023ko aurrekontuan 6.148.333 euro aurreikusi zen ziurtatzea AP-8/AP-1 autobideetan bidesarietako kobrantza-sistemen berrikuntza-lanengatik; errealitatean, 1.291.037,47 euro ziurtatu dira. Ziurtatutako lanen zenbatekoaren eta 2023ko aurrekontua egiteko unean (2022ko urria) aurreikusitakoaren arteko aldea obren gauzatze-aurreikuspenaren eta gauzatze errealaren arteko desbideratzeen ondorio da. Horren isla da 2023ko abenduaren 31n konprometitutako zenbatekoa: 4.442.719,63 euro (kontuan hartu da 2023ko ekitaldia ixtean esleitutako kontratuetatik eta lizitatutako kontratuetatik ziurtatzeke dagoen zenbatekoa).

### ADIERAZLEA:

2019-2023 urteen artean, lau kobrantza-gune berrituko dira osorik (Zarautz Barrera, Zarautz M/O, Irun Bentak eta Irun M/O) eta beste bi berritzen hasi (Oiartzun eta Zarautz Ekialdea).

2023ko aurrekontua egiterakoan, aurreikusi zen 2023ko ekitaldiaren amaieran lau kobrantza-guneak berrituak egongo zirela. Errealitatean, 2024an berrituko da Irun Bentak eta 2024 eta 2025 artean Irun M/O eta Orioko, baina Zarautz Barrera eta Zarautz M/O-ko kobrantza-guneak berritzeko lanek aurrekontuan izan duten pisua dela eta, 2019-2023 urteen artean kobrantza-guneak osorik berritzeko planean jasotako aurrekontu osoaren % 78 gauzatu da 2023ko itxierarako.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Kobrantza-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea



### Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	6.612.028,88	1.395.154,39		
<b>1.1 Ekintza</b>				
AP-8/AP-1 Kobrantza-Guneen Berrikuntza. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	6.612.028,88	1.395.154,39		

### Datozen urteetako gastuak




	Hasierako datoen urteetako gastuak	Konprometituta ko datoen urteetako gastuak
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	3.209.178,22	4.596.555,31
<b>1.1 Ekintza</b> AP-8/AP-1 Kobranta-Guneen Berrikuntza. Proiektua idatzi. Proiektua gauzatu.	3.209.178,22	4.596.555,31

**Urteko helburua:** Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatietan zerbitzu-mailak hobetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako edukiera handiko bideetan kobratu beharreko tarteetan zerbitzu-mailak hobetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%)	Ehunekoa	93,00	100,00	90,00	100,00

**Joera**

Gipuzkoako edukiera handiko bideetan kobratu beharreko tarteetan zerbitzu-mailak hobetzea. Jarduketa Planaren betetze-maila (%) - Ehunekoa



**Memoria**

Gipuzkoako gaitasun handiko ordainpeko errepide zatietan zerbitzu-mailak hobetzea.

**JARDUKETA ILDOA:**

Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.

Bi dira helburua betetzera bideratutako ekintza nagusiak:

## Memoria

### 1 EKINTZA:

Operadorearen urteko ustiapen plana etengabe egokitzea, Gipuzkoako gaitasun handiko bideetan kobratu beharreko tarteak ustiatu, mantendu eta kontserbatzeari dagokionez.

2023:

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

BIDEGIk kudeatzen dituen errepideak eta kobrantza-sistema ustiatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko operadoreak ematen duen zerbitzua AP-8, GI-20, A-636 (Iehen, GI-632) eta AP-1 Gipuzkoako lurralde historikoan, baita zerrendatutako errepide horiekin lotzen diren bide-adarrak eta orotariko instalazioak, aparkalekuak, partzelak eta eraikinak, zerbitzuguneak eta jatetxe-arloko eremuak izan ezik .

2023ko urteko kostua 40.849.960,97 eurokoa izan da. Zenbateko horrek barne hartzen du:

- Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2023ko apirilaren 4an onartu zuen 2022ko ekitaldiko likidazio-proposamena: BIDEGIren alde 888.231,43 euro. 2022ko urteko kontuetan 2022ko ekitaldiko likidazioaren aurreikuspena jaso zen: BIDEGIren alde 797.205,11 euro. Aldea 2023ko apirilean jaso da.

- 2023ko ekitaldiko likidazioa: 2024ko otsailaren 23an onartu zuen Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 383.684,56 euroko likidazioa BIDEGIren alde.

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

A-15 eta N-I errepideak eta kobrantza-sistema ustiatzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko operadoreek ematen duten zerbitzua.

2023ko urteko kostua 12.351.677,24 eurokoa izan da.

2023an, ez denez ezustekorik izan operadoreen urteko ustiapen planean, % 100ekoa izan da 2023ko aurrekontuan planifikatutako lanen gauzatze-maila.

### 2 EKINTZA:

Gipuzkoako ahalmen handiko bideetan kobratu beharreko errepide zatien birjarpen handietarako, berrinbertsioetarako eta inbertsioetarako plana etengabe egokitzea.

2023:

2023ko aurrekontua:

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

TUNELAK: 4.404.669,00 €

AP-1ean, Lesarriko tunelean egin beharreko jarduketak zehazteko proiektuan zehaztutako lanei ekingo zaie.

BIDE-ZORUA: 5.679.770,14 €

AP-8/GI-20:

- AP-8-7-2-E adarreko zoruaren egitura birgaitzea, Irungo udalerrian.

- Urumeako zubibidean zorua birgaitzea, 2. norabidean.

- AP-8an errodadura berritzea 68+410 eta 57+580 KPen artean, 2. noranzkoan.

- GI-20 errepideko errodadura berritzea 11+580 eta 13+500 KPen artean, 1. noranzkoan.

AP-1/A-636:

- 137+230 eta 138+180 KPen arteko errodadura, 1. noranzkoa.

- 135+540 eta 133+590 KPen arteko errodadura, 2. noranzkoa.

ARRISKU GEOTEKNIKOAK: 2.844.700,00 €

- BIDEGIren errepide-sareko ezpondetako arriskuak arintzeko jarduketa puntualak.

- AP-8 autobidean, Bilborako noranzkoan, 13+770 eta 13+980 KPen artean, betelan bat egonkortzeko obrak.

- AP-8 autobideko hiru ezponda egonkortzea 7+850, 47+360 eta 67+320 KPetan.

- Ezponden eta lubeten aldizkako azterketa geoteknikoa.

- A-636ko 17+050 KPan lerradura egonkortzea eta zubibidearen iparraldeko estribuko betegarriak egonkortzea (Antzuola).

BIDE-SEGURTASUNA: 1.790.850,00 €

- BIDEGIko errepide-sareko bide-segurtasunaren kudeaketa integratua.

- Aritzetan eta Zumaian orientazio-seinaleak berritzea.

- Orioko udalerriko 34+000 eta 35+000 KPen artean bide-segurtasuna hobetzeko proiektua gauzatzea, 1. noranzkoan.

- Eskoriatzako adarrean stop-seinalea kentzea.

- AP-1-130-S autobideko irteera-adarra eta Epeleko biribilgunea lotzeko obrak (Arrasate).

## Memoria

ITS: 500.000,00 €

Komunikazio-sarearen zati bat berritzea (elektronika aktiboa: switch-ak eta routerrak).

EGITURAK: 2.285.000,00 €

- BIDEGIk kudeatutako errepide-sareko egituren jarraipena.

- 38+370 KPan azpiko pasabidea birgaitzeko eta handitzeko eta 38+600 KPtik 38+300 KPra, Bilbo-Behobiarako noranzkoan, errei gehigarri bat sortzeko proiektuan zehaztutako obrak.

- Arbizelaiko zubibidearen eta Maltzaga-Irun bidezubi estraditatuaren ((AP-1 145+870 KP) diagnostiko-txostenak.

JARDUKETA BEREZIAK-KONTINGENTZIAK: 1.059.062,23 €

- Hernaniko zerbitzuguneak berrantolatzeako obrak (1. noranzkoa).

- Informazio-azterlana, AP-8 autobidean, Zumaiako Lotunea-Bizkaiko Muga errepide-tartean hirugarren erreia sortzeari eta trazadura hobetzeari buruzkoa.

INGURUMENA: 150.000,00 €

Drainatzea hobetzeko jarduketak.

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

N-I eta A-15 errepideetako kobrantza-sistema zabaltzeko lanak amaitzea.

2023an, % 81ekoa izan da 2023ko aurrekontuan planifikatutako lanen gauzatze-maila. Hona hemen xehetasuna:

Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena:

TUNELAK:

AP-1ean Lesarriko tuneletako instalazioak mantentzea, estaltzea eta berritzea. 2023ko maiatzean hasi zuten obra eta planifikatutakoaren arabera gauzatu dituzte 2023ko lanak.

BIDE-ZORUA:

- 2023ko uztailaren 7an esleitu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak AP-8ko eta AP-1eko hainbat zatitan errodadura-geruza berritzeko proiektua (lanak burutzeko epea: 24 hilabete).

2023ko irailean hasi zituzten lanak, eta 2023an errodadura berritu dute honako tarte hauetan:

GI-20:12+454 11+101 Behobiarako noranzkoan.

GI-20:11+094 11+785 Bilborako noranzkoan.

AP-8: 61+144 - 56+060 Behobiarako noranzkoan.

- 2023ko irailaren 28an esleitu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak Urumeako zubibideko bide-zorua birgaitzeko obren exekuzioa (Bilborako noranzkoa), (lanak burutzeko epea: 6 hilabete).

Obra 2023ko urrian hasi zuten eta aurreikusten da 2024ko apirilera amaitzea.

ARRISKU GEOTEKNIKOAK:

- BIDEGIren errepide-sareko ezpondetako arriskuak arintzeko jarduketa puntualak: 2021-2022-2023 kanpaina. 2023ko ekainaren 23an sinatu zuten lanen harrera-akta, eta 2023ko irailaren 28an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak azken ziurtagiria.

Honako ezponda hauetan jardun da:

AP-1: 117+665 - 117+855, 120+350 - 120+665, 120+885 - 120+985, 122+985 - 123+490, 125+540 - 125+920, 145+550 - 145+820 KP; Eskoriatzako ordainlekuko irteera-adarra 0+650 - 0+230 Gasteizerako noranzkoan; eta harri-lubeta Eskoriatzako ordainlekuan.

AP-1: 123+225 - 123+465, 126+750 - 126+985, 132+865 - 132+955 KP; Eskoriatza ordainlekuko irteera-adarra 0+230 03465 KP; eta Bergara ordainlekuko irteera-adarra 0+634 - 1+100 Eibarrerako noranzkoan.

AP-8: 06+450 - 06+990, 51+360 - 51+520, eta 54+070 - 54-1-S-0+180 Itziar, Bilborako noranzkoan.

AP-8: 30+930 - 31+380, 39+920 - 40+150, 53+400, 55+270 - 55+360, 56+030 - 56+140, 56+160 - 56+370, 57+010 - 57+320, 57+540 - 57+940, eta 66+230 - 66+500, Behobiarako noranzkoan.

- AP-8 autobidean, Bilborako noranzkoan, 13+770 eta 13+980 KPen artean, betelan bat egonkortzeko obrak. 2022ko azaroan hasi zuten obra; 2023ko apirilaren 5ean sinatu zuten obraren harrera-akta; eta, 2023ko maiatzaren 19an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak lanen azken ziurtagiria.

- AP-8 autobideko hiru ezponda egonkortzea 7+850, 47+360 eta 67+320 KPetan. 2022ko irailean hasi zuten obra; 2023ko otsailaren 24an sinatu zuten obraren harrera-akta; eta, 2023ko apirilaren 4an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak lanen azken ziurtagiria.

- Ezponden eta lubeten aldizkako azterketa geoteknikoa. Aurreikuspenekin bat doaz lanak.

- 2023ko irailean hasi dituzte AP-8an Orioko irteerako 2. adarreko betelana egonkortzeko lanak, eta aurreikusten da urte amaierarako amaitzea.

- Orioko irteerako 2. adarreko betelana egonkortzea.

## Memoria

2023ko irailean hasi zuten obra; lanen harrera-akta 2023ko abenduaren 12koa da; eta 2023ko ekitaldiaren itxieran, onartzeke geratu zen azken ziurtagiria.

- 2023ko abenduan, teknikariek AP-8ko 52+500 KPan (Bilborako norabidean) dagoen ezponda indartzeko lanak kontratatzeke espedientea aktibatzeke beharra antzeman zuten.

### BIDE-SEGURTASUNA:

- BIDEGIko errepide-sareko bide-segurtasunaren kudeaketa integratua. Aurreikuspenekin bat doaz lanak. Nabarmentzen dira istripu-tasaren jarraipena eta horri lotutako txostenak, baita hainbat proiektu idaztea ere:

GI-20 errepideko Aritzeta eta Ondarreta lotuneetako orientazio-seinaleak egokitzeko eraikuntza-proiektua eguneratzea.

AP-8an Zestoako lotuneko orientazio-seinaleak egokitzeko eraikuntza-proiektua eguneratzea.

Bide-segurtasuneko proiektua, ura metatzeko putzuak kentzeko.

Irungo udalerrian, AP-8an 7+000 - 7+300 KPen artean, Bilborako noranzkoan, hirugarren erreia zabaltzeko proiektua.

- Orioko udalerrian AP-8 autobidearen goranzko norabideko 34 eta 35 KPen artean bide-segurtasuna hobetzeko lanak.

2023ko maiatzean hasi zuten obra; 2023ko abuztuaren 25ekoa da obraren harrera-akta; eta, 2023ko irailaren 28an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak azken ziurtagiria.

- Irungo Bentetako AP-8-7-1-E adarrean berrantolaketa hobetzea. (Irun M/O sarrera).

- GI-20 errepidean Aritzetako eta Ondarretako lotuneetako orientazio-seinaleak egokitzea.

2023ko azaroan hasi zituzten lanak, eta aurreikusten da 2024ko apirilean amaitzea.

- AP-8an Zestoako lotuneko orientazio-seinaleak egokitzea. 2023ko abenduaren 14an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak obra lizitatzea.

- Arrasateko udalerrian, AP-1-130-S autobidearen irteerako adarraren eta Epeleko biribilgunearen arteko lotura egokitzeko eraikuntza-proiektua idazten amaitzea.

Ondoren, 2023ko azaroan, hasiera eman zitzaion jarduketara gauzatzeko lanak kontratatzeke espedienteari (egokitu AP-1-130 irteera-adarra Epeleko biribilgunearekin lotzeko puntua (1. fasea)).

### EGITURAK:

- BIDEGIk kudeatutako errepide-sareko egituren jarraipena. 2023ko urtarrilaren 17an sinatu zuten lanen hasiera-akta eta hiru urtez emango dute zerbitzua. Aipamen berezia merezi du 4+500 KPan dagoen A-636 errepideko OD2.3 azpiko pasagunean larrialdiz jarduteko proposamenak. 2023ko abenduan, hasiera eman zitzaion egitura indartzeko lanak egiteke espedienteari.

- 38+370 KPan azpiko pasabidea birgaitzeko eta handitzeko eta 38+600 KPtik 38+300 KPra, Bilbo-Behobiarako noranzkoan, errei gehigarri bat sortzeko proiektuan zehaztutako obrak. 2023ko maiatzean hasi zituzten lanak, eta aurreikusten da 2024ko lehen seihilekoan amaitzea.

### JARDUKETA BEREZIAK-KONTINGENTZIAK:

- Hernaniko zerbitzuguneak berrantolatzeke obrak. 2023ko maiatzean hasi zituzten lanak.

- Informazio-azterlana, AP-8 autobidean, Zumaia Lotunea-Bizkaiko Muga errepide-tartean hirugarren erreia sortzekei eta trazadura hobetzekei buruzkoa. Aurreikuspenekin bat doaz lanak.

- AP-8 autobidean Zumaia lotunetik Bizkaiko mugaraino hirugarren erreia sortzekei eta trazadura hobetzekei buruzko informazio-azterlana idaztea. 2022ko maiatzean sinatu zuten kontratua eta 2025ean amaituko da.

- AP-8ko 22+400 KPan Donostiako Bigarren Ingurabideko zerbitzuguneak berrantolatzea. 2023ko maiatzean hasi zituzten lanak eta 2024ko lehen seihilekoan amaituko dituzte.

- Drainadura hobetzea eta Zarimutzeko tunelaren hegoaldeko ahoko burualdean jardutea.

- AP-8an, 1+640 eta 0+000 KPen artean, Irungo udalerrian, Behobiarako noranzkoan, hirugarren erreia handitzeko eraikuntza-proiektua idaztea. 2023ko abenduan ekin zioten lanari, eta aurreikusten da 2025eko bigarren seihilekoan amaitzea.

- AP-8an, 7 eta 7,3 KPen artean, Irungo udalerrian, Bilborako noranzkoan, hirugarren erreia zabaltzeko proiektua gauzatzeko. 2023ko abenduaren 14an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak obra lizitatzea.

- 2023ko abenduan, BIDEGIk laguntza teknikoko zerbitzua kontratatu zuen, BIDEGIk kudeatutako zerbitzuguneetan ibilgailu elektrikoa kargatzeko instalazioak hornitzeko goi-tentsioko hartune elektrikorako eskaerak kudeatzeko.

### INGURUMENA:

- Drainatzea hobetzeko jarduketak. BIDEGIk kudeatutako AP-8 eta GI-20 errepideetako zeharkako drainatze-lanak birgaitzea. 2. sorta. Obra 2022ko uztailan hasi zuten eta 2022ko abenduan amaitu. 2023ko urtarrilaren 27an, BIDEGIren Administrazio Kontseiluak obren azken ziurtagiria onartu zuen.

- BIDEGIk kudeatutako AP-8 eta GI-20 errepideetako zeharkako drainatze-obrak birgaitzeko eraikuntza-

## Memoria

proiektua idazteko laguntza teknikoa (II. fasea). 2023ko azaroan onartu zuen BIDEGIko zuzendari nagusiak, bere ahalmenetan oinarrituta, zerbitzua emateko lizitazioa egitea.

- AP-8an, Elgoibarko udalerraren parean, Zarataren aurkako pantailen osotasuna mantentzeko eta itxiturak hobetzeko lanak. 2023ko martxoan hasi ziren lanean; 2023ko maiatzaren 10ean sinatu zuten obraren harrera-akta, eta 2023ko uztailaren 17an onartu zuen BIDEGIko zuzendari nagusiak lanen azken ziurtagiria.

Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena:

N-I eta A-15 errepideetako kobrantza-sistema zabaltzeko lanak amaitzea.

2023ko urtarrilaren 23tik abian da Gipuzkoako N-I eta A-15 errepideetan salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunek erabiltzeagatiko kanona kobratzeko sistema.

### ADIERAZLEA:

Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planari eta errepide horietan egin beharreko hobetze-inbertsioen eta berrinbertsio/ezohiko mantentze-lanen planei dagokienez, 2023ko aurrekontuan jasotako zenbatekoaren % 90 ziurtatu da.

Ziurtatutako zenbatekoaren eta aurreikusitako aurrekontuaren arteko aldea gauzatze aurreikuspenaren eta gauzatze errealararen arteko desbideratzeen ondorio da, bereziki birjarpen handietarako, berrinbertsioetarako eta inbertsioetarako lanei dagokienez.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.



% 45,00



% 45,00



% 10,00

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>87.939.048,03</b>	<b>79.896.690,38</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>				
Operadorearen urteko ustiapen-plana etengabe egokitzea, Gipuzkoako gaitasun handiko bideetan kobratu beharreko tartekak ustiatu, mantendu eta kontserbatzeari dagokionez.	60.656.419,31	57.492.157,57		
<b>1.2 Ekintza</b>				
Gipuzkoako ahalmen handiko bideetan kobratu beharreko errepide zatien birjarpen handietarako, berrinbertsioetarako eta inbertsioetarako plana etengabe egokitzea.	27.282.628,72	22.404.532,81		

## Datozen urteetako gastuak


	Hasierako datoen urteetako gastuak	Konprometituta ko datoen urteetako gastuak
<b>Jarduketa ildo, guztira</b>	20.554.039,18	29.176.807,55
<b>1.2 Ekintza</b>	20.554.039,18	29.176.807,55
Gipuzkoako ahalmen handiko bideetan kobratu beharreko errepide zatien birjarpen handietarako, berrinbertsioetarako eta inbertsioetarako plana etengabe egokitzea.		

**Urteko helburua:** Finantza-betebeharrak betetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Zorraren zerbitzuaren estaldura ratioa $\geq 1,15$	Kopurua	1,68	1,15	1,70	1,15

### Joera

Zorraren zerbitzuaren estaldura ratioa  $\geq 1,15$  - Kopurua



### Memoria

Finantza-betebeharrak betetzea.

JARDUKETA ILDOA:  
Finantza-betebeharrak betetzea.

EKINTZA:  
Finantza-betebeharrak betetzea.

**Memoria**

2023:  
BIDEGIK bere finantza-konpromiso guztiak bete ditu Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) eta Merkataritza Bankuaren maileguen amortizazioei dagokienez, nahitaezko kontratu-egutegiaren arabera.

Honakoak izan dira 2023an ordaindutako amortizazioak eta finantza-gastuak:

Maileguen nahitaezko amortizazioak: 44.568.319,40 €

Merkataritza Bankuarekin sinatutako maileguari dagokionez, borondatezko amortizazioa: 30.000.000,00 €

Maileguengatiko finantza-gastuak: 26.302.455,08 €

2023an, ez denez ezustekorik izan finantza-betebeharrei dagokienez, % 100ekoa da helburua lortzeko egin beharreko ekintzen gauzatze-maila.

**ADIERAZLEA**

1,70 izan da 2023ko ekitaldiko \*behin-behineko Zorraren Zerbitzuaren gaineko Estaldura Ratioa (ZZER).

\*Auditoreak finantza-kovenantei buruzko txostenean ikuskatu beharreko datua.

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak****1. Jarduketa ildoak:**

Finantza-betebeharrak betetzea

**Ordainketa kredituak**

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	72.248.327,96	100.870.774,48		
<b>1.1 Ekintza</b>				
Finantza-betebeharrak betetzea.	72.248.327,96	100.870.774,48		

## GENERO BERDINTASUNeko PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Txikia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Mugikortasuna eta antolaketa egokiak izatea lurraldean


**Beharraren eboluzioa:**



## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Erabat bermatzea euskararen erabilera, bai erabiltzaileari zerbitzua ematean, bai lan egitean.

Kategoria	Nola	Egoera
1.- Zerbitzu hizkuntza	Erabiltzaileei informazioa euskaraz zein erdaraz ahalbidetzen da	

**GJH**
**Kuantifikazioa:** 223.671.273,80 ( % 100,00 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>3-OSASUNA ETA ONGIZATEA</b> Guztintzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.	<b>139.319,19</b>	<b>106.291,89</b>
<b>Helburua</b>	3.6 - Gipuzkoan istripuek eragindako heriotzen eta lesioen kopurua murriztea.	139.319,19	106.291,89
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.	139.319,19	106.291,89
	<b>9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</b> Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	<b>39.534.929,89</b>	<b>16.593.349,87</b>
<b>Helburua</b>	9.1 - Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, pertsona guztiek irispide eskuragarria eta bidezkoa izan dezaten ahalegin berezia eginez.	39.534.929,89	16.593.349,87
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	2.605.007,39	599.561,40
	Kobranta-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	837.092,63	2.757.933,19
	Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.	139.319,19	106.291,89
	Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.	35.953.510,67	13.129.563,40
	<b>11-HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</b> Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	<b>38.698.033,50</b>	<b>14.188.780,33</b>
<b>Helburua</b>	11.6 - Gipuzkoako ingurumen inpaktu negatiboa murriztea, arreta berezia eskainiz airearen kalitateari eta udal hondakinen eta bestelakoen kudeaketari.	38.698.033,50	14.188.780,33
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	2.605.007,39	599.561,40
	Kobranta-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	139.515,44	459.655,53
	Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.	35.953.510,67	13.129.563,40

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK</b> Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>109.927.539,96</b>	<b>4.483.029,16</b>
<b>Helburua</b>	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	109.927.539,96	4.483.029,16
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	578.890,53	133.235,87
	Kobrantza-Guneen Berrikuntzarako proiektua idatzi, lizitatu eta gauzatzea	418.546,32	1.378.966,59
	Finantza-betebeharrak betetzea	100.870.774,48	
	Bazkardon (Andoain) A-15 / N-1 lotura egiteko obren proiektua idaztea, eta lanak izapidetzea.	69.659,60	53.145,95
	Gipuzkoako errepideak mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko urteko planen kudeaketa hobetzea; eta horietan inbertsioak eta hobekuntzak egitea.	7.989.669,04	2.917.680,75
<b>Guztira</b>		<b>188.299.822,55</b>	<b>35.371.451,25</b>

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.922.194,00	1.516.557,74	78,90
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	61.635.473,00	58.209.731,04	94,44
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	24.483.910,00	26.302.455,08	107,43
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>88.041.577,00</b>	<b>86.028.743,86</b>	<b>97,71</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	38.501.364,00	27.702.767,91	71,95
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>38.501.364,00</b>	<b>27.702.767,91</b>	<b>71,95</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	3.187.821,00		
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	44.568.319,00	74.568.319,40	167,31
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>	<b>47.756.140,00</b>	<b>74.568.319,40</b>	<b>156,14</b>
<b>Guztira / Total</b>	<b>174.299.081,00</b>	<b>188.299.831,17</b>	<b>108,03</b>

<b>PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL</b>			
<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako datozen urteetako gastuak Gastos Futuros iniciales</b>	<b>Konprometitutako datozen urteetako gastuak Gastos futuros comprometidos</b>	<b>Konprometitutako datozen urteetako gastu % % gastos futuros comprometidos</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>			
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	24.871.794,04	35.371.451,25	142,22
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>24.871.794,04</b>	<b>35.371.451,25</b>	<b>142,22</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>24.871.794,04</b>	<b>35.371.451,25</b>	<b>142,22</b>

**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak Gastos Futuros	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	6.041,66	1.510.516,07		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	19.948,47	58.189.776,74		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS		26.302.455,08		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>25.990,13</b>	<b>86.002.747,89</b>		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	322.307,85	27.380.457,28	265.729,73	35.105.721,52
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>322.307,85</b>	<b>27.380.457,28</b>	<b>265.729,73</b>	<b>35.105.721,52</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS		74.568.319,40		
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>		<b>74.568.319,40</b>		
<b>Guztira / Total</b>	<b>348.297,98</b>	<b>187.951.524,57</b>	<b>265.729,73</b>	<b>35.105.721,52</b>
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>0,20</b>	<b>107,83</b>	<b>1,07</b>	<b>141,15</b>

**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES	174.299.081,00	203.059.658,69	100,00	
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>174.299.081,00</b>	<b>203.059.658,69</b>	<b>116,50</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		1.384.507,49	100,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>		<b>1.384.507,49</b>		
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>174.299.081,00</b>	<b>204.444.166,18</b>	<b>117,30</b>	